

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2009KO OTSAILA


Euskal AEko industri jarduera %-21,8 murriztu zen 2009ko otsailean

Aurreko hilaren aldean, 2009ko urtarrilaren aldean, %-0,6 murriztu zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2009ko otsailean %-21,8 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, 2008ko hil beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %-0,6 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2009ko urtarrilarekin alderatuta.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka



(*) 2009ko urtarril-otsaileko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat

Sektoreen arabera bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusiak sailkatu ostean, 2009ko otsaileko indizearen bilakaerak den-denen jaitsierak erakusten ditu, 2008ko otsailaren aldean. Bitarteko ondasunak %-29,2 jaitsi dira, Ekipoko ondasunak %-21,8 eta Energia %-1,6. Kontsumo-ondasunak %-14,4 jaitsi dira; Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %-11,7 jaitsi ziren, eta Kontsumo-ondasun iraunkorrak %-21,4.

2009ko urtarrilaren aldean, 2009ko otsailean hil arteko aldaketak positiboak izan dira Energiari (%6,5) eta negatiboak Tartekeko ondasunetan (%-2,4), eta Ekipoko ondasunetan (%-1,0); Kontsumo-ondasunek %1,1 egin dute gora. Kontsumo-ondasunen osagaien artean, Kontsumo-ondasun iraunkorrek %2,3ko hil arteko igoera izan dute eta Kontsumo-ondasun ez iraunkorrek %0,7 aurreko urtarrilaren aldean.

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoei dagokienez, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiru lurraldeetan: Araban %-28,5, Bizkaian %-20,3 eta Gipuzkoan %-21,7.

Lurraldeetako hil arteko hazkunde-tasei dagokienez (2009ko otsailekoak, 2008koen aldean) bilakaera ezberdinak izan dira aipatu aldian: Bizkaian %+0,9, Araban %-2,3 eta Gipuzkoan %-1,4.

Taula: 2009ko OTSAILA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntzasak (%).

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	09Ots/08Ots	At/At-1 (1)	09Ots/09Urt	09Urt/08Abe
Indize orokorra: Euskal AE	-21,8	-22,5	-0,6	-1,8
Araba	-29,4	-28,5	-2,3	-1,4
Bizkaia	-18,4	-20,3	0,9	-2,3
Gipuzkoa	-21,3	-21,7	-1,4	-1,4
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-14,4	-15,7	1,1	-0,8
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-21,4	-24,6	2,3	-4,4
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-11,7	-12,3	0,7	0,5
Ekipo-ondasunak	-21,8	-22,5	-1,0	-3,7
Bitarteko ondasunak	-29,2	-28,9	-2,4	-0,3
Energia	-1,6	-5,8	6,5	-5,5

(1) "t" urteko otsailetik azken hileraren arteko metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, "t-1" urteko aldi berberaren aldean.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Telef.: +34 -945 75 00 Faxa: +34 -945 75 01 e-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp